


ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko martxoak 3 • 1261 zenbakia


SASOI BATEKO IZARRAK



Toribio Etxebarria, 1

EUKI *20 urtetik gorako esperientzia eskaintzen dizuegu balorazioetan eta eraikinetako salerosketa, alokairu eta traspasorako bitartekotzan*

inmobiliariak



API bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com



Euskararen sozializazioa eta transmisioa

XIII. MINTEGIA

Aurrez aurre zein streaming
bidez jarraitzeko aukera

Martxoaren 15ean

Armeria Eskolako
areto nagusian

Izen-ematea ZABALIK

- 08:45:** Akreditazioa eta material-banaketa.
- 09:00:** Ongietorria.
- 09:15:** **“UEU, katebegien eraikuntza”.**
Ane Sarasua, UEUko Idazkari Nagusia.
- 09:55:** **“Euskalgintza: atzeak (ere) erakutsiko ote digu aurrea nola dantzatu”.**
Idurre Eskisabel, Kontseiluko Idazkari Nagusia.
- 10:35:** **“Euskararen biziberritzea, munduko beste hizkuntzen begietatik”.**
Eñaut Agirre, Garabideko koordinatzailea.
- 11:15:** ATSEDENA ETA KAFAA.
- 11:50:** **“Bestelako sare sozialak posible dira: Mastodon”**
Lorea Arakistain PUNTUEUSeko marketin zuzendaria eta Asier Iturralde,
Iametzeta eta ARGIAko garatzailea
- 12:30:** **“Ihes-gela digitala. Irulegiko eskuak joko eman digu”.**
Markel Sanchez eta Ainhoa Zabarte, Berbaro Elkarteko kideak.
- 12:55:** **“Euskararen Baloiaaren aurkikuntza SD Eibarren”**
Mikel Larrañaga SD Eibar Fundazioko lehendakari ordea.
- 13:25:** Agurra.

www.etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
943 20 09 18

antolatzailea

laguntzaileak

 **eta kitto!**
euskara elkarte



Jarraitu gaitzazu!



Martxoaren 8ko Eibarko lantaldeak (...eta kitto! Euskara Elkarte, Arrate Kultur Elkarte, SD Eibar Fundazioa, Neledantza, Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunea, Goi Argi, Pagatxa, Berdintasun Zerbitzua-Andretxea eta hainbat norbanakak osatutakoa) hilabete osorako egitaraua prestatu du, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Astelehenean aurkeztu zuten, Andretxean.

Pintura erakusketa bikoitza inauguratu dute Portalean: Saioa Burutaran artistaren "Laranjen artean" izeneko koadroetan Mediterraneoko paisaiaren, emakumearen eta gizartearen duten rola eta laranjen arteko harremanaren miaketa pertsonala egiten du artistak. Eta Maitte Rosende artistaren "Urtaroak. Ordu batetik hamarretara" izenekoak, berriz, laster kaleratuko den izenburu bereko liburuko egindako 40 ilustrazio biltzen ditu.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILERA
...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILERA
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez

DISEINUA
Maku Oruezabal

MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri

PUBLIZITATEA
Belen Ulazia

TELEFONOA
943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA
Pascual Marin (Kutzateka)

BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.800 ale

INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A
...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gu gabe munduak ez du funtzionatzen

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, aldarrikapen eguna eta data historikoa desberdintasunaren, soldaten eta pentsioen arrakalaren, diskriminazioaren eta genero-indarkerien aurkako borrokan. Eta aurten, mugimendu feministarekin batera, bereziki bideratu nahi dugu pertsona guztiok zainduak izateko eskubidea dugula aldarrikatzeko, eta are gehiago gure zahartzaroan. Eta zainketa-lanak partekatua izan behar duela. Horregatik, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bat egin eta elkartasuna adierazi nahi dugu diskriminaziorik gabeko mundu bat ospatzeko. Gaur egun pentsiodunak garen emakumeok gure herrietako plaza guztietan zuekin batera borrokatzen ari garen aldarrikapenen zerrenda luzea dugu:

Soldata berdintasunaren alde borrokatzen dugu. Lan bera edo lan baliokideak egiten direnean, soldatek berdinak izan behar dutela onartzeagatik. Lan feminizatuen gutxiespenarekin amaitu behar dugu. Soldata-arrakalak emakume langile pobreak eta erretiroan diru-sarrerara pre-karioak dituzten adineko emakumeak sortzen ditu.

Duintasun-pentsio baten alde ere borrokatzen gara, gutxienez 1080 eurokoa. Euskal Herrian 200.000 baino gehiago dira mila eurotik beherako pentsioak dituzten emakumeak, eta milaka 700 eurora iristen ez direnak. Ezin ditugu ahaztu pentsiorik jasotzeko eskubiderik ez duten adineko emakume guztiak.

Eta, bereziki, martxoaren 8an, gizonen eta emakumeen zaintza partekatuko sistema bat aldarrikatzen dugu, eta pertsona guztientzako zaintza-sistema publiko unibertsal eta kalitatezkoa. Zainketa-lana lan gisa aitortu behar da, horrek dakartzan eskubide guztiekin. Eta zaindu dugun modu berean, zainduak izan nahi dugu, eta nola izan behar duen erabaki nahi dugu. Horregatik guztiagatik, eta benetako berdintasunaren aldeko borrokaren esparruan, emakume pentsiodunok martxoaren 8ko manifestazioan parte hartuko dugu, geure aldarrikapenekin eta lepoko zapiarekin. Gora emakume pentsionisten borroka”

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua

Astean esanak



Bilboko alkate jaunak dio oso kezkatuta dagoela Frantziako Tourra gurean hasiko dela-eta mota guztietako lo-lekuak izango duten prezioen igoerarekin. 8.000 euro ordainduko duenak ez duela “esperientzia” on bat izango. Ziur? Horretan bakarrik 8.000 euro gastatzeko duenak beste hainbeste edo gehiago izango baitu “esperientziak” nahi adina erosteko. Agian guztioi negozioa egiteko garaia iritsi zaigu eta gure etxeak hustu beharko genituzke etorriko den tourzale andanari lo-leku egokia eskaintzeko, garesti eskaini ere, txirindularitza maite duen herria izateaz gain, herri enprendedorea ere bagarela mundu osoari erakusteko.

RIKARDO ARREGI, zutabegilea


Aspaldian berri on gisa hartzen dugu urte berri egunean Eibarko Astelena ia beterik ikustea. Ez oso aspaldi bost edo sei jaialdi izaten ziren egun horretan Euskal Herrian zehar. Pilota salbatuztat ematen dugun uean hasiko dira frontoiak berriro husten; hori bera da gure euskeraren, kirolaren, herriaren patua. Bizi nahi badugu, ezinbestekoa izango da beti erresistentziaren epika. Gainera, ` posible al da euskal pilota profesionalari behar duen indarra ematea pilotazaleak ez diren -eta izango ez diren ikusleen bidez? Bai, posible da eta beharrezko. Eta gertatzen ari da, Gernika eta Iruñeko Labrit lekuko.

IÑAKI GALDOS, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDOREN → Atzetik, segixan. “Ondoren zer etorriko dan, horixe iñok ez dakixana”. Ondorioa. “Urtien ondorena, zimeldu eta igartzia”.

ONDOREN/ONDORIK IBILLI → Norbaiten atzetik ibili, norbaiti segika ibili. “Ondoren ebillen, baiña alperrik”. “Ondorik zer dakarren baneki...”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

- BARIXAKUA 3**
 - EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
 - ZAPATUA 4**
 - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
 - DOMEKA 5**
 - EGUNEZ | Iraundegi** (Calbeton, 19)
 - ASTELEHENA 6**
 - EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
 - MARTITZENA 7**
 - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
 - EGUAZTENA 8**
 - EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
 - EGUENA 9**
 - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
 - BARIXAKUA 10**
 - EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- GAUEZ BETI,** 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Mohamed El Hassouni Lehri.** 73 urte. 2023-02-22.
- **Rosa Maria Loiola Arando.** 65 urte. 2023-02-23.
- **Victoria Txurruka Sologuestua.** 96 urte. 2023-02-23.
- **Alberto Aldalur Urizar.** 78 urte. 2023-02-24.
- **Julian Mugerza Baskaran.** 85 urte. 2023-02-25.
- **Fernando Ulazia Lejardi.** 79 urte. 2023-02-25.
- **Felisa Alberdi Arakistain.** 94 urte. 2023-02-28.

Jaiotakoak

- **Marcos Derwin Martinez.** 2023-02-12.
- **Aitana Antonella Lazo Cabrices.** 2023-02-14.
- **Nour Yahya El Karbas.** 2023-02-14.
- **Maren Diaz Ormaetxea.** 2023-02-18.
- **Isaac Dobarro Maghanoy.** 2023-02-19.
- **Hod Brouyalil.** 2023-02-20.
- **Merida Gonzalez Hernandez.** 2023-02-22.
- **Islam Baalala.** 2023-02-22.
- **Rayan Bensif.** 2023-02-24.



Eibarren euskararen erabilera sustatu eta zabaltzeko jarduera eta programetarako izango da dirua. Zatik handiena elkarte eta erakundeek hartuko dute, horretan jarraitzeko.

Euskara sustatzeko 420.896 euroko inbertsioa aurreikusi du Udalak

Euskara bultzatzeko eta zabaltzeko hainbat jarduera eta programetarako 420.896 euroko inbertsioa aurreikusi du Eibarko Udalak 2023rako, iaz baino %37 gehiago, orduan 305.758 euro jarri ziren-eta. Datu horiek aste honetan eman dituzte ezagutzera Jon Iraola alkateak eta Patxi Lejardi Kultura eta Euskara zinegotziak.

Azaldutakoaren arabera, zenbateko osotik 310.000 euro inguru (kopuru osoaren %73) euskararen sustapenean lan egiten duten entitateei Udalak dirulaguntza izendunen bidez ematen dizkien laguntzak dira. Gauzak horrela, zenbateko horretatik 200.000 euro ...eta kitto! Euskara Elkar-teak urtean zehar egiten dituen argitalpen eta jardueretarako izango dira: “Zehazki, 100.000 euroko inbertsioa aurreikusi da ...eta kitto! astekariaren argitalpena diruz laguntzeko, 2022ko ekitaldian baino 40.000 euro gehiago. Horiei beste

310.000 euro euskararen sustapenean lan egiten duten entitateei emango zaizkie; iazkoarekin alderatuz gero, %37ko igoera dago

50.908 euro gehitu behar zaizkie Berbetan mintzapraktika programarako; 29.050 euro, atzerriko eta bertakoen arteko bizikidetzeta sustatzeko Ongi Etorri programarako (iaz baino 17.430 euro gehiago); 15.000 euro, Txikitto! umeen al-dizkaria argitaratzeko (iaz baino 1.500 euro gehiago); eta 5.000 euro elkarteak antolatutako tailer eta hitzaldietarako”.

Proiektu berriak abiatzeko

Era berean, 48.000 euro jarri dira Eibarren Akebai plataformarako (2022an baino 7.200 euro gehiago); 30.000 euro Eibarko AEK-arentzat, helduak euskalduntzeko (iaz baino 5.100 euro gehiago); 2.769 euro Hankamotxak bertso- eskolarako; 1.366 euro Badihar- dugu programarako, hitzezko ondarea jaso, ikertu eta hedatzen laguntzeko; eta 13.847 euro De- babarreneko euskarazko komuni- kabideen taldea (DKT) bideratze- ko (iaz 2.129 euro inbertitu ziren horretan). Gainera, aurtzen beste programa berri bat ere egongo da eta horrek Udalak euskara susta- tzeko aurreikusitako inbertsioa gehitzea eragingo du. Izan ere, Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik “Eibar Hiri Hezitzaile” ize- neko programa berritzailea abia- tuko da, eta horretarako 15.000 euro ipini dira.

Gainerako 109.915 euroak, 420.896 euroraino, Udalak be- rak zuzenean bultzatutako ekime- netarako erabiliko dira (iaz baino 23.000 euro gehiago izango dira gutzira). Atal horretan, besteak beste, familian euskararen trans- misioa zaintzeko eta erabilera gehitzera zuzendutako ekintzak, ikastetxeetan erabilera bultzatze- ko ekimenak, etorri berriak eus- karara gerturatzeko egitasmoak eta beste hainbat daude.



Andoni Zabala izango da hirugarrena Eibarko sozialisten zerrendan

Eibarko PSE-EEk Andoni Zabala gazte eibartarraren hautagaitza aurkeztuko du udal hauteskudeetan, zerrendako hirugarren postuan. Adierazi dutenez, "datorren maiatzaren 28ko hauteskudeei begira, sozialistek alderdiaren oinarri soziala zabaltzeko duten estrategiaren barruan kokatzen da. Bere nortasuna, prestakuntza akademikoa, dinamismoa eta Eibarko bizitza kulturean duen inplikazioa izan dira Jon Iraola buru duen zerrenda sozialistan sartzeko arrazoi nagusiak". Zabalak 37 urte ditu, Arte Ederretan lizentziaduna da eta Itzamna akademiako sortzaileetako bat. Bertan gaztelerazko klaseak ematen dizkie errefuxiatuei.

Txaltxa-Zelaiko harmailen ingurua hobetzeko lanak udarako amaituko dituzte

Txaltxa-Zelaiko harmailen ingurua hobetzeko lanak adjudikatu berri ditu Udalak. Obra horrek in eremua eraberritu egingo da eta ur-jokoetarako eta komun publikoetarako gune bat jarriko da. Lanak Obras Especiales Edificación e Infraestructuras SAU enpresak egingo ditu, 699.158,41 eurotan (BEZa barne). Epea, berriz, 22 astekoa da. Jarduketa hori Bosark Arkitektoak enpresak egindako proiektu batean oinarritzen da.

Aurreikuspenen arabera, lanak datozen asteetan hasiko diren eta uda honetarako amaituta egongo dira. Proiektuak harmailen zati baten espazioa hobetuko du, jarleku gainera zurezko moduluak jarriko dira, sarrerako eskailerak hobetuko dira, kioskoa txukundu eta ondoko egonlekua berriz zolatu. Gainera, komunak egingo dira kioskoaren beraren egituraren azpian, Eibarko Txikito kaletik sartuta.



Rosa Maria Loyola Arando

2023/02/23

"Lagun bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"



- ABONTZAKO KUADRILLA -



Fernando Ulazia Lejardi

2023/02/25

"Anai, senarra, aitxa, aitzitxa eta lagun. Urte hauetan guztietan bizi izan ditugun momentu eder eta konpartitutako maitasunak lagunduko digute zure falta eramaten"



ESKERRIK ASKO / MAITE ZAITUGU
- ZURE FAMILIA ETA LAGUNAK -



Jangeletan elikagaien xahutzearen prebentziorako plana aurkeztu dute

Iazko irailean hasitako diagnostiko faseko ondorioak aztertu ondoren, Debabarreneko Mankomunitateak eta Eibarko Hezkuntza Esparruak 14 ekintza biltzen dituen plana aurkeztu berri dute, elikagaiak alferrik galtzea saihesteko asmoz. Izan ere, Hezkuntza Esparruaren jantokian irailean egin zen astebeteko diagnostikoa eta gero, denbora tarte horretan 350,5 kilo elikagai alferrik galtzen direla ikusi zuten. Horrelakorik ez gertatzeko, besteak beste, senti-

bilizazio-ekintzak egingo dituzte, sukaldariei prestakuntza emango zaie eta, horrez gain, otordu zerbitzuaren aurreikuspena hobeto kudeatzeko, helbide elektronikoa bat sortuko da, ikasleek jantokian bazkaldu edo afalduko duten edo ez aurrez jakinarazi dezaten. Bestalde, soberan geratzen diren elikagaiak kudeatzeko, banaketa-zerbitzu bat jarriko dute martxan, eskualdeko hainbat gizarte-elkarteri eman dakizkiekeen elikagaiak bideratzeko.

Gaur 20:00etan amaituko dira neguko merkealdi bereziak Errebal Plazan

Gaur iluntzean itxiko ditu atea aurten estreineko Errebalen egin den neguko merkealdien azoka. Eibar Merkataritza Gune Irekiak Udalaren laguntzarekin antolatzen duen azoka eguaztenean inauguratu zen eta bertan 16 establezimendu egon dira, beraien stand eta guzti. Beste zortzik, berriz, beraien saltokietan egin dituzte eskaintzak. Beste batzuetan bezala, ...eta kitto! Euskara Elkarte ere bertan egon da, Euskeraz Prime-ran kanpainarekin.



Carmen Larrañaga zinegotzi-ohia hil da

Hamasei urtez gure herriko zinegotzi izandako Carmen Larrañaga eguaztenean hil zen, 80 urterekin. PPko zinegotzia izandakoa 1999an heldu zen Udalera, Regina Otaola taldekide zuela. Biek ere Iñaki Arriolaren aldeko botoa eman zuten, sozialista alkate izateko. Handik lau urtera, Herri Batasuna legez kanpola zutenean, bere kargua berretsi zuen. 2007ko hauteskundeetan PPK ordezkari bakarra lortu zuen Eibar-ko Udalean, baina Regina Otao-

lak Lizartzako alkate kargua hartu zuen eta Larrañagak jarraitu zuen zinegotzi gisa. Kargu horretan bete zuen azken legegintzaldian Sofia Vazquez taldekidea izan zuen lagun, 2015ean bere dimisioa aurkeztu aurretik. Javier Nuñezi pasatu zion orduan lekukoa. Udalean izandako funtzioen artean, besteak beste, Ego Ibarra batzordeko buru ere izan zen. Eibarren bizi izan zen beti eta bere aldeko elizkizunak eguen arratsaldean egin ziren.



Osakidetzako garbikuntza zerbitzuko beharginek bi asteko greba hasi dute

ELA sindikatuak bi asteko greba deitu du (martxoaren 12ra arte), “Osakidetzako garbitzaile kontratatuen artean, karrera profesionala ordaintzea eta Hitzarmenaren Negoziazio Mahaia desblokeatzea lortzeko”. Salatu dutenez, “patrona-

lak eta administrazio publikoak azpikontratutako langileak bigarren mailako langile gisa tratatzen ditu. Bost urte baino gehiagoko negoziazioaren ondoren, kolektiboarentzat hobekuntzak negoziatzeko inolako borondaterik ez dute erakutsi”.

Herritarren iritzia bildu nahi ditu Debegesak, Plan Estrategikorako

Debabarreneko Plan Estrategikoa lantzen dihardu Debegesak eta, prozesu horretan, herritarren ekarpenak ahalbidetzeko formularioa prestatu du. Online bete daiteke, martxoaren 8ra arte, Debegesaren webgunean. Planaren zirriborroa ere bertan ikus daiteke..



AUTUAN

HILAK 11n OSPATUKO DU ERNAIK 10. URTEURRENA

Egun osorako egitarauarekin ospatuko du 10. urteurrena Ernai gazte abertzaleen erakundeak datorren asteburuan, martxoaren 11n, Errebalen ekitaldi politikoa-rekin hasita. Trikipoteoa, bazkaria, Gazte Olinpiadak eta karropoteoa antolatu dituzte, besteak beste. Bazkarian zein jokoetan parte hartzeko aurretik izena eman behar da.



IPURUAKO JUBILATUEN TABERNA BERRIZ ZABALIK

Azken hilabeteetan itxita egon den Ipuruako jubilatuen etxeko tabernak atek zabaldu ditu berriz. Beti bezala, bertako bazkideei zerbitzua emateaz gain, beste edozeinek dauka bertara joateko aukera. Gainera, bazkariak eta afariak ere ematen dituzte, astebarruan eta baita asteburuetan ere.

ek!

Zure publizitatea
herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

Urtzi Antxustegi (688 649 837)

09:30 – 19:00

EROSKI-n

garbibox

auto-garbiketak
Empieza - realitatea

ZERBITZU BERRIAK: sabai edo tebu-konponketak,
tapizatu-konponketak, etxeko garbiketak une zehatzetan...



Jacques Anquetil, Bass Maliepard eta Guy Ignolin, Ipuruan ipinitako belodromoan (1963ko Vuelta). EGO IBARRA.

Cil lantegian egindako bizikletak Valentziara, Gijonera... hainbat lekutara bidaltzen ziren. Guztiak salduta egoten ziren. Lantegi gehiago ere bazeuden: GAC, BH, Orbea... Txirrindulari lasterketak zeudenean, Eibarren egindako bizikletak erabiltzen zituzten.

Eibarren egindako bizikletak lasterketetan

Felisa Solozabal Arriaga
(1923 – 2022)



Eibarren jaio zen, Ibarkurutzen, 1923an. Gurasoak Etxebarrikoak ziren, baina Eibarrera ezkondu ziren eta bertan jaio zen Felisa. Aita gazterik hil zen eta ez zuen asko ezagutu. Amak, bizimodua aurrera ateratzeko, apopiloak izaten zituen etxean. 15 urterekin neskame joan zen Felisa. 18 urte bete orduko, berriz, Cil bizikleta lantegian hasi zen lanean. Bizikletak paketatzea zen bere egitekoa. Sei urte egin zituen han, argi baitzeukan ezkondu ostean ez zela lantegira joango. Bi alaba hazi zituen. 96 urte zeuzkan elkarrizketa egin zitzaionean.

Felisa Solozabali grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Bizikletak. Danak, dan-dan-danak salduta eguazen. Salduta. Danak. Orduan bizikletiak furor haundixa ekan. Haundixa! Ta, gero, eguazen fabrikak be bizikletadunak. GACia, BH, Orbea... danak eguazen. Ta, klaro, eguanian karrera be, bizikletena, karrera, carrera de vuelta a España, vuelta a esto, vuelta al País Vasco... egoten ziran, badakizu, hamengotxe bizikletak. Baiña, juan ziranian “quinto coñora”, hablando en plata, ta bestia Vittorixara, ta bestia no sé que... juan zan dana. Eibarren juan zan dana.

Euskeraz primeran! ekimena neguko merkealdien azokan egon da

Aste honetako eguazten, eguen eta gaur, barixakua, neguko merkealdien azokan izan da ...eta kitto! Euskara Elkartearen Euskeraz primeran! ekimena. Eguraldi txarra iragarrita zegoela-eta, estreineko bider egin da azoka Errebal Plazan, Toribio Etxebarrian egin beharrean. Hiru egunetan izan da bertan ...eta kitto!, erosketak egiterako orduan ere herritarrak euskaraz egitera animatzeko. Gerturatu direnek dinamika erraz batean hartu dute parte; euskara non erabiltzen duten eta non erabiltzeko konpromisoa hartzen duten adierazi dute



bertan zeuden horma-irudietan, eta, Euskeraz primeran!-eko poltsa jasotzeaz gain, EMGI-k emandako 100 euroko erosketa-txartelaren zozketan ere sartu dira.




Amaitu da ikasturteko Barixakuak Jolasian

Joan den barixakuan Urkizuko parkean egindako jolasekin agurtu du ...eta kitto!-k ikasturteko azkeneko Barixakuak Jolasian ekimena. Udazkenean eta, orain, neguan herriko hiru auzotan antolatu ditu jolasak hamabi astetan: Untzaga aldean, Amañan eta Urkizun. Bi eta zortzi urte bitarteko umeentzat antolatu dira jolasak, hainbat begiraleren lagun-

tzarekin, guraso eta seme-alabek euskaraz tarte polita pasatzeaz gain, familiak Gurasoak Berbetan programara hurbil daitezten. Familia-giroa euskalduntzea du helburu programa horrek eta hainbat ekintza antolatzen dira horretarako urtean zehar. Izena edozein momentutan eman daiteke (943200918 / elkarte@etakitto.eus) eta doan da.

Aste honetan banatu da otsaileko Txikitto!



Aste honetan jaso dute Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek Txikitto! hilabeteakaria. Ohi baino lodiago kaleratu da gainera; izan ere, aratosteek protagonismo berezia dute otsaileko alean eta bost orrialde eskaini dizkie eskoletako ospakizunei eta herrian antolatutakoei. Horrez gainera, Iturburuko ikasleek klima-aldaketari buruz esandakoak jasotzen ditu aldizkariak, eta Arrateko Andra Mariko ikasle batek Venezuelako amamari egindako elkarrizketa ere bai. Ez dira falta ikasleek egindako txiste, denborapasa eta ipuina, lehiaketa eta irakurtzeko gomendioak ahaztu barik. Aste Santuko oporren aurretik banatuko da martxoko alea.

Emakumeak ahalduntzeko programa biribila

Emakumearen Nazioarteko Egunerako Eibarko Martxoaren 8ko lantaldeak osatu duen egitarauaren aurkezpena egin zuten astelehenean Andretxean. Egitarauaren ardatz edo gai nagusi bezala “Gela propioak eta ahalduntze espazioak” aukeratu dute. Izan ere, lantalde honek urtero gai bat adosten du Martxoaren 8ko egitaraua horren inguruan osatzeko eta aurtun Virginia Woolf idazle feministak XX. mendearen hasieran idatzitako berba hauek ekarri nahi izan dituzte gogora: “Emakume batek, eleberriak idatzi ahal izateko, dirua eta gela propioa izan behar ditu”

animatu zaituzte gurekin dantza egitera!

dantza emanaldia

MARTXOAK 4
13:15ETAN UNTZAGAN
EGURALDI TXARRA EGON EZKERO
13:15ETAN ERREBAL PLAZIAN

ENTZUGU IRERIA

martxoak 3
19:30etan
Mogel Isasiko
patio estalian 1 solairu

bideo tutoriala Youtuben
@KAZAGUEA

Eta gela propioak (edo norbaitek lagatakoak bai behintzat) behar dira, baita artelanak zein bestelako sormen-lanak erakutsi ahal izateko ere, eta horretarako toki ezin aproposagoa aurkitu dute Saioa Burutaran eta Maite Rosende artista gazteek: martitzenaz geroztik Portaleko erakusketa aretoan ikus daitezke bien margolanak, aldi berean zabaldu den erakusketa bikoitzean. Udaleko Kultura sailak eta Berdintasun zerbitzuak antolatu dute, Katapulta Plataformaren eta Kutxa Fundazioaren laguntzarekin, eta martxoaren 26ra arte egongo da ikusteko moduan, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Eguaztenean, bestetik, “Raquetistas. Gloria, represión y olvido de las pelotaris profesionales” liburuaren aurkezpen-solasaldia egin zen, Arrate Kultur Elkartearen. Egitarauan aurrera eginaz, gaur 18:30ean Erik Poppey zuzendariaren “Mil veces buenas noches” pelikula proiektatuko dute Portalean (areto nagusian), Pagatxak antolatuta. Zine-forumeko solasaldia, beti bezala, Izaskun Rodriguez Elkorok dinamizatuko du eta jarduera irekia eta doakoa izango da.



...eta kitto! Euskara Elkarteak, Arrate Kultur Elkarteak, SD Eibar Fundazioak, Neledantzak, Kaxa Mugimendu eta Sormen Guneak, Goi Argik, Pagatxak, Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak eta hainbat norbanakok osatzen dute Martxoaren 8ko lantaldea. SILBIAHERNANDEZ

Kateak dantzarekin apurtzen

Eta bihar, 13:15ean, dantza ikuskizuna egingo da Untzagan (eguraldi txarra eginenez gero, Erreal Plazan izango da), Kaxa mugimendu eta sormen gunearen eskutik. Ekintza “Kateak apurtzen” izeneko 15 minutuko dantza pieza batekin hasiko da: “Emakume jaitzeak zer suposatzen duen irudikatuko da. Estereotipoek eta presio sozialengatik kateatuta. Kate horiek hautsi eta elkarrekin esnatu nahi dugu. Ahizpatasuna. Amaieran, akelarre bat irudikatuko da, emakumeen eskubideak defendatzeko borrokatu zuten emakume guztien omenez”. Amaieran, dantza bateratua egingo da, parte hartzera animatzen diren herritar guztiakin. Hori dela eta, koreografia ikasi nahi dutenentzat bideo-tutoriala igo dute Kaxaren YouTube kanalera (@kaxagunea) eta, horrez gain, gaur entsegu irekia egingo dute, 19:30ean Mogel Isasi ikastetxeko patio estalian.

Martxoaren 8an ohikoak diren mobilizazioekin bat egiteaz gain, Martxoaren 8ko lantaldeak antolatutako jarduerak hilabete osoan zehar garatuko dira. Astelehenean, Antzerki Jardunaldiekin elkarlanean, “Las que limpian” lana eskainiko dute eta hilaren

Martxoaren amaierara arte burutuko dira Martxoaren 8ko lantaldeak antolatu duen egitarauko jarduerak

18an, berriz, “Hobe ixilik”, biak 19:00etan, Coliseon. Eta astelehenean zabalduko dute “Itsaspeko Bihotzak areto literarioa” Erreal Plazan (hilaren 16ra arte). Martxoaren 18an, bestalde, “Re-cordis Pasar de nuevo por el corazón” tailerra egingo da Portaleko dantzalekuan, Kankaneo teatroren eskutik (izen-ematea andretxea@eibar.eus emaillean, martxoaren 10era arte). Martxoaren 28an, 18:30ean Goi Argin “Habitaciones propias y espacios de empoderamiento” solasaldia egingo da, La Sinsorga kultur gune feministarekin eta Neledantzaren harrerarekin. Hilaren amaieran, Andretxean, “Gure gela propioa” erakusketa egingo da, Eibarko 12 emakumeren eskutik. Eta hilabete osoan zehar, Juan San Martin Udal Liburutegian Martxoaren 8ko helduentzako irakurketagida egingo da eskuragarri.

Distira galdu ez duten izar ahaztuak

Bideoa



Mundu guztian zehar zeuden kantxak betetzen zituzten, kargu publiko garrantzitsuenek baino diru gehiago irabazten zuten, eskola ugari zeuden eta milaka gaztek jarraitu nahi zuten euren bidea eta, orain, ezer gutxi dakigu euren inguruan. Erraketistei buruz ari gara. Nola liteke hainbeste ospe izan duten emakumeen historia ahaztua izatea? Olatz Gonzalez Abrisketak horren gakoak ematen ditu 'Raquetistas. Gloria, represión y olvido de las pelotaris profesionales' liburuan.

Gonzalez Abrisketak eguaztenean aurkeztu zuen liburua Arrate Kultur Elkartean, Amets Castrejana Fernandez antropologoa lagun, erraketistek protagonismo berezia izan zuten herrian. Gerra aurretik erraketisten hiru eskola zeuden herrian, ehun neska ingururekin eskola bakoitzean. Fenomeno handia zen erraketistena eta Eibar zegoen horren guztiaren erdigunean.

Erraketisten ibilbidea XIX. amaieran hasi zen. Sasoi horretan, Gerra Zibiletik eta II. Mundu Gerratik aurrera gertatu zen kirolaren maskulinizazioa iritsi arte, kirolaren inguruko giroa gaur egun ezagutzen dugunaren guztiz ezberdina zen. "Kirolaren mundua oso anitza zen", azaldu zuen Gonzalez Abrisketak. Kirol ezberdin asko egiten ziren eta emakumeek berebiziko papera jokatzen zuten. Ez bakarrik kirolari moduan (sasoiko kronikek modu berean idazten zituzten gizonen eta emakumeen partiduak, euren kirol



gaitasunak aipatuz eta abar), baita ikusle bezala ere. Pilota partiduetan, adibidez, harmailak gizon zein emakumez betetzen ziren eta emakumeek apustuak egiten zituzten.

Gerra aurreko giro horretan erraketistak masa-fenomenoa bihurtu ziren. “Demaseko ikuskizuna eskaintzen zuten, publikoari asko gustatzen zitzaion, apustuak egiteko aukera ematen zuten eta frontoiak bete egiten ziren”, aipatu zuen Castrejana antropologoak. Beraz, frontoi ugari eraiki zituzten han eta hemen, Euskal Herrian, Espainian zein munduko toki ezberdinetan. 1917. urtean, adibidez, frontoia zabaldu zuten Madrilen eta, erraketisten arrakasta ikusita, urte gutxitan berriztu egin behar izan zuten, merkataritza-gune bihurtuz (dendak, ileapaindegia eta bestelako zerbitzuak aurkitu zitezkeen bertan).

Dirua eta emantzipazioa

40. hamarkadan profesional gehien zituen kirola bilakatu zen eta erraketistek diru asko irabazten zuten. Adibidez, Carmen Lopez ‘La Boltxe’-k 2.500 pezeta irabazten zituen 1929an, partiduak eta txapelketak irabazteagatik eskuratzen zuenaz gain. Ostera, 1935ean, Francisco Francok, sasoi hartan Errepublikako Estatu Nagusiko buruak, 2.400 pezeta irabazten zituen.

Erraketistek han eta hemen jokatzen zuten, Euskal Herrian eta atzerrian. Batzuentzat liberazioa izan zen baserria utzi, erraketista bihurtu eta gizonen mende ez egotea. Batzuek bikoteak zituzten, beste batzuek ez; batzuek seme-alabak zituzten eta eurekin bidaiatzen



40. hamarkadan, profesional gehien zituen kirola bilakatu zen. UDAL ARTXIBOA

>>> 'Raquetistas' liburuak erakusten du pilota ez zela beti gizonen esparrua izan

zuten, beste batzuek senarren esku lagatzen zituzten seme-alabak... “Euren artean oso giro ona zegoen, oso solidarioak ziren, oso ondo bizi ziren eta oso ondo pasatzen zuten”, azaldu zuen Gonzalez Abrisketak.

Emakume eta familia askorentzat bizitza ona edukitzeko aukera zen erraketista izatea eta eskolak sortu ziren han eta hemen. Esan bezala, Eibarren hiru eskola zeuden. “Orduz egia ezartzen zuten eta demaseko ilarak egoten ziren”, antropologoaren berbetan.

Fenomeno geldiezina

Gerra Zibilean, ostera, Eibarko bombardaketak berarekin eraman zituen erraketisten eskolak. Hala ere, gerran partiduak jokatzen jarraitu

zuten, baina kronika gutxi dago eta kroniketan ez dira emakumeen izenak agertzen.

Frankismoaren hasieran erraketistek ez zuten arazorik izan. Fenomeno geldiezina zen eta frontoi berriak eraikitzen jarraitzen zuten (Salamancan eta Donostian gerraren urteetan zabaldu zituzten, adibidez), baina pixkanaka egoera okertzen joan zen.

Frankismoak pilota bere egin nahi izan zuen eta, berez estatuaren sortutako kirola izanik, ‘Pelota Nacional’ bilakatu nahi izan zuten. Hau da, estatuko kirola. “Noski, frankismoan, nazio bat ordezkatzeko kirola izanik, gizona bakarririk jokatu zezaketen”, antropologoaren berbetan, eta emakumeak pilotatik aldentzeko bidea hasi zuten.

Emakumeei pilotan egitea debekatu zitzaion, baina debekua ez zen gauzatu. Izan ere, jende askoren ogibidea zen eta estatuak ere diru asko irabazten zuen bertatik. Hori bai, 1946rako emakumeak frontoietatik kanpo egon behar zirela zehaztu zuten eta lizentzia berriak



Gerra aurretik Eibarren erraketisten hiru eskola zeuden. OLATZ GONZALEZ ABRISKETA

emateari laga zitzaion, erraketisten eskolei demaseko kaltea eraginez.

Pilotarien koadroa zahartzen joan zen, konpetentzia gero eta handiagoa zen frontoien artean eta hiri-inguruetakako frontoi asko itxi egin behar izan zituzten.

Egoera horretan, 1939an, kirolaren historian eman zen lehen epaiketa gertatu zen. Groseko intendenteak erraketista batzuk auzitara eraman zituen, berarekin kontratua edukita Madrilera jokatzerara joan zirela egotzita. Epaileak intendenteari eman zion arrazoia, baina horrek erakusten du erraketistak profesionalak zirela (askotan gutxietsi izan da euren jarduna).

Historiatik ezabatuak

Frankismoak itxi zien bidea Mexikok ireki zien 1951n. “Frontoia asko gustatzen zitzaien, frontenisa bertan garatu zen eta erraketistei ateak ireki zizkietenean zalaparta sortu zen herrialdean”, Gonzalez Abrisketak kontatu zuenez. Hara

>>> Erraketistek estatuko goi karguek baino diru gehiago irabazten zuten

joan ziren euskaldunek, ostera, askatasuna eta diru gehiago aurkitu zituzten.

Gerratik ihesi (eta aurretik ere) euskaldun askok eraiki zuten bizitza berria Mexikon, baina egia da, baita ere, euskal diasporako alde bati ez ziola grazia handiegirik egiten erraketisten arrakastak. “Berez, nazionalismoak erraketisten oroipena desagerrarazi zuen”, antropologoaren berbetan.

Desagerpen horretan, hala ere, izen eta abizen batzuek dute pisu handiena: Luis Bombin. Espainiako Pilota Federazioko idazkari teknikoa izan zen frankismoan eta



bere eskutik etorri zen emakumeek pilotan egiteko debekua eta lizentzia berriak ez ematearen erabakia.

Agintaria izateaz gain, Bombinek ‘Historia, ciencia y código del juego de pelota’ (1946) eta ‘El gran libro de la pelota’ (1976) liburuak idatzi zituen. “Pilotaren inguruan idatzi diren liburu gehienek Bombinen idatziak hartzen dituzte ardatz”, Gonzalez Abrisketak dioenez, eta, bere jarduna ikusita, pentsa daiteke nolako kontakizuna egiten duen erraketisten inguruan.

Gerrak eta frankismoak paper garrantzitsua jokatu zuten kirol-modalitate hau desagertzeko orduan, eta Bombin bezalako idazleek erraketistak memoria kolektibotik ezabatzeko ahalegina egin dute; baina, nahiz eta gainbeheraren ondoren 1980ko uztailaren 18an erraketista profesionalen azken partidua jokatu zen, mundu mailako izar izan ziren kirolari hauen oroitzapenak bizirik jarraituko du.



Zintzilika, baina hor bada bizitza. JOXE ARANBERRI

“Argi nuen filmatzen nuen lehen pelikulak Eibarko osaben inguruko zerbait kontatu behar zuela”

AMAT VALLMAJOR • Zine zuzendaria



Amat Vallmajor Vergesekoa (Girona) da, baina Eibarkoa du ama eta bertan bizi da bere familiaren zati bat. Horregatik, txikitatik bidaia asko egin ditu Kataluniatik Euskal Herrira, eta alderantziz eta, bidaia horretatik eta osabek kontatutako istorioetatik abiatuta, ‘Mision a Marte’ pelikula sortu du.

Txomin eta Gerardo ‘Gene’ del Pozo anaiakdira pelikularen protagonistak (Amaten osabak). Txomin arkeologoa da eta Generen osasun egoera ez da batere ona. Orduan, Txominek Marten azterlan bat egiteko enkargua jasotzen du eta bidaia hasten dute biek. Bidean Mila arrebarekin egiten dute bat (Amaten ama) eta familiako kexu zaharrak azaleratzen dira, Generen egora okertzen den bitartean. Dena dela, misioarekin jarraitzea erabakitzen dute eta mamu batzuen eta Jesukristo beraren laguntza jasoko dute Martera heltzeko.

Nolatan hasten da Eibartik Martera doan misio bat?

Ama Eibarren jaio zen eta Txomin osaba Eibarren bizi da oraindik. Beraz, protagonistak eurak direnez, misioa Eibartik hasi behar zen nahita nahiez. Hain zuzen ere, Iparragirre kalean hasten da, Txomin bertan bizi delako. Pelikulak Txomin eta Genek Martera egiten duten bidaia kontatzen du, eurek eta nik neuk Euskal Herria eta Katalunia artean autoan egindako bidaietan oinarrituta. Askok gustatzen zitzaizkien euren kontatutako istorioak entzutea eta hortik etorri zitzaizkien inspirazioa.

Txikitatik izan duzu filmean erakusten duzun irudimena?

Pixka bat bai. Agian nik ez hainbeste, baina osabek beti izan dute imajinario handia, eta euren istorioak entzuten ibili naizenez, beti liluratu nau euren alboan egoteak. Berba asko egin eta asko hausnartzen duen familiarik datoz. Horregatik, argi nuen filmatzen nuen lehen pelikulak Eibarko osaben inguruko zerbait kontatu behar zuela.

Pelikula Euskal Herri post-apokaliptikoan kokatzen da. Zentzu horretan, Eibarrek aukera onak eman dizkizu hori guztia irudikatzeke?

Zalantza barik! Txontan grabatu genuen hango fabrikaren eta autopistaren zubiaren artean, Iparragirren osabaren etxean... Toki post-apokaliptikoa dela sinetsi dezakezu (barreak).

Osabak eta ama dira pelikulako aktoreak. Zergatik eurak eta ez, adibidez, aktore profesionalak?

Eurak hor egonda, zergatik euren papera egingo duten aktoreak hartu? Izan ere, inork ezingo luke lana eurek bezain ondo egin. Zoragarria izan da eurekin lan egitea, asko maite ditudalako eta elkar oso ondo konpontzen garelako. Niretzat lehen aldia izan da pelikula bat zuzentzen eta eurentzat ere lehen aldia izan da antzezten. Beraz, guztion artean egindako aurkikuntza izan da.



Txikitan Eibartik Kataluniara egindako bidaiak izan ditu ardatz Amat Vallmajorrek pelikula sortzeko orduan. NUEVECARTAS

Nola sortu zen pelikula egiteko aukera?

Elias Querejeta Zine Eskolan Sorkuntza Masterra egiten ari nintzen eta bertan hasi zen proiektua garatzen. Sarritan joaten nintzen Txomin ikustera eta lehen probak egiten hasi nintzen, irudiak hartzen, eta Eibarko tailer hutsak, fatxadak eta osabak ezagutzen dituen mila toki filmatzen.

Pelikula zeluloidean eta zuri-beltzean grabatu duzu. Zergatik?

Zine Eskolan zeluloidean eta zuri-beltzean grabatu ahal izateko materiala nuenez, aprobeixatu nahi izan nuen, pelikula honentzat formatu egokiena zela iruditzen zitzaidalako. Izan ere, egokia da bertan ordezkatuta azaltzen den belaunaldiarentzat, bilatzen nuen estetikaarentzat (post-apokaliptikoa, grisa eta dekadentea), eta abar. Zuri-beltzak eta zeluloideak hori guztia nabarmentzen duen testura ematen dio pelikulari.

Musikari dagokionez, Hertzainak taldearen argitaratu gabeko abestiak erabili dituzu. Nola lortu dituzu? Gene Hertzainak taldearen fundatzaileetako bat da. Musikari bezala inoiz ez zuen taldearekin jo, baina

“Osabak eta ama hor egonda, zergatik euren papera egingo duten aktoreak hartu? Inork ezingo luke lana eurek bezain ondo egin”

bandaren fundatzaile ideologikoetako bat izan zen eta lehen albumeko zenbait abestiren letrak idatzi zituen; besteak beste, ‘Ezer ez da berdin’ eta ‘Si Vis Pacem Parabellum’. Taldekideak autoan entsegetara eramaten zituen, soinu-teknikari lanak egiten zituen... Baina taldea profesionalizatu zenean taldetik kanpo egin zuen bidea.

Kartelak duen punk estetika pelikulan islatzen da?

Pelikulak pertsonaiek ematen dioten punk espiritua dauka. Eurek duten eta hainbeste gustatzen zaidan espiritu hori berreskuratu nahi nuen. Belaunaldi kontua da eta gaur egun galtzen ari da pentsatzeko eta ekiteko

modu hori. Pena ematen dit, baina ulertzen dut historiako momentu bakoitzak bere berezitasunak dituela eta sasoi bakoitzean jendeak modu batean ekiten eta erantzuten duela. Orduan, osabek asko eragin didatenez, eurek lagatako arrastoa irudikatu nahi nuen.

Nolako misioa da gaur egun pelikula bat sortzea?

Zaila. Berez okina naiz, hori da nire lanbidea. Pelikulak poztasun asko ekartzen dizkit eta asko gustatzen zait pelikula alde batetik bestera mugitzea. Xixonen aurkeztu genuen, Pontevedran egon ginen ondoren, orain Berlinetik etorri berri gara, Bartzelonara goaz datorren hilabetea... Pelikula ondo mugitzen ari da eta zoriontsu egiten nau horrek, baina ez naiz horretan profesionalki aritzen. Agian etorkizunean pelikulak egiten jardungo dut, ia horrela den, baina momentuz okindegiko lanarekin uztartu behar dut. Horregatik, zaila da, gauza bietan ibili behar naizelako, baina pozik nago.

Lehen pelikula izanda, gainera, oso harrera ona jaso du.

Bai, eta horregatik diot pelikulak poztasun asko ekarri dizkidala, baina argitu beharra dago hau ez dela nire ogibidea.

Jaialdietan ibili zarete, baina, bestela, pelikula non ikusi ahal izango dugu?

Nahi baduzue, esteka bidaliko dizuet Internet bitartez ikusi ahal izateko (behean dagoen QR kodearen bitartez jo daiteke bertara). Bestetik, udan zinemetan ikusteko aukera egongo da, baina oraindik ez dakigu zehazki zein aretotan egongo den ikusgai. Galizian saria irabazi genuen, badakit ziur bost zinemetan egongo dela (Galiziako bitan, Madrilgo baten, Mallorcako batean ere eta Bartzelonako beste baten). Horrez gain, beste zinemaren batean emateko ahaleginak egiten ari gara; adibidez, Gironan (bertakoa naizelako) edo Euskal Herrian (pelikularen gaiak bat egiten duelako lurraldearekin). Donostian bizi naiz, eta ea Tabakaleran jartzea lortzen dugun edo, zergatik ez, Eibarren. Ba al dago zinema-aretorik Eibarren?

Astebururo pelikulak ematen dituzte Coliseo antzokian.

Bikain! Orduan, presio egiten saiatuko gara pelikula bertan emateko (barreak).



“Pelikulak punk espiritua dauka. Gaur egun galtzen ari da pentsatzeko eta ekiteko modu hori, eta pena ematen dit”

Pelikula
ikusteko





LEIRE NARBAIZA

Azken mohikanua

Azken mohikanua sentitzen naiz askotan. Gero eta gehixagotan, gaiñera. Sentimentu hori aspalditik datorkidala uste dot. Oin urte asko, Donostian uda baten, aborigen sentidu nintzanetik, bertakua zan bakarra nintzalako taberna bateko barran. Kanpoko turistaz betetako herrixan, indigenia. Bisittarixak salakota jantzitta baletoz moduan, antropologia egittera, zurito eta pintxuen artian. Oso sensaziño arrarua eta deserosua izan zan.

Denporiak Donostiako Alde Zaharrian gero eta normalagua bihurtu jaku egoera hori, eta autoktonorik ia ez da ikusten, ez bada biharrian. Bertako askok be laga detse bertan poteatziari, eta beste auzo batzuetara jua dira kuadrilliarekin. Ez da guretako, berba baten.

Halaxe sentidu nintzan lantza eta arkuia falta jatazela, bertakoegixa nintzala. Guk ez dogu txapela eta kaikurik janzten oin, baiña Afrikako tribueri moduan, laster eskatuko deskue tipikuaguak eta exotikuaguak izateko, eta etorriko da proposamenik pospolin janzteko domeketan, *autentikuaguak* izan gaittezen, bisittarixak benetako esperientzixia izan deixen. Abixauta zagozie!

Gure probintziako hiriburuan ez eze, Eibarren be gertatzen jata holakorik, ez aborigen sentitzia, baina bai azken mohikanua naizelako sentimentua eukitzia. Ez da, jakiña, etortzen jakun turista morduagaittik, ez. Txarragua dala pentsatzen dot batzuetan, euskeriak pasatzen jatalako, Eibarko euskeriak, gaiñera.

Ez da bakarrik ezezagun batekin berba egitten dodanian arpegi arrarua jartzen destalako, edo ez destalako aitzen, ez. Txoko honetan be pasatzen jata. Lehen aldizkari honetan artikulo luze bat gure herriko euskeran idazten zan; oin, ostera, ez dago halakorik. Kolaboratzaillien artian be bakarra naizela esango neuke, behintzat azken zenbakixak ikusitta. Azkena naiz, horretara.

Behin baiño gehixagotan pentsau dot batuan idaztia hamen, normala izateko. Baiña ez detsat etsiko. Mohikanuak gangarra egitten zeben; neria, baiña, ez da ulezkua, geuriari eustia izango da!

"Guk ez dogu txapela eta kaikurik janzten oin, baiña Afrikako tribueri moduan, laster eskatuko deskue tipikuaguak eta exotikuaguak izateko"

Negutraila eta Islandia Mendi Jardunaldietan

Atzo Coliseon Alex Txikonek eskainitako hitzaldiarekin hasi ziren aurtengo Mendi Jardunaldiek domekan eta datorren asteko eguenean izango ditu hurrengo ekitaldiak. Etzikoan Negutraila izango dugu protagonista, Irene Sarrionandia gonbidatu bereziarekin, eta hilaren 9koan Igone Mariezkurrenak bizikletan egindako ibilera berezia erakutsiko digu Portalean, naturaren inguruko proiektio bikainarekin.

Domekan Kalamua Korrikalari Taldeak antolatzen duen Negutrailaren edizio berria egingo dute Mendi Jardunaldien barruan, oraingoan mendi-lasterketen munduan esperientzia luzea duen Irene Sarrionandiarekin, irteeran zehar egingo diren geldialditxoetan, berak eskainiko dituen gomendioak partekatzeko aukeraz baliatzeko. Ohikoa denez, Depor aurretik abiatuko da martxa goizeko 08:30ean eta, antolatzaileek diotenez, “prestatutako 15 kilometroko ibilbidea erraza da, hiru ordutan egiteko modukoa”. Interesatuak kalamuakorrikalaritalka@gmail.com helbidean eman dezakete izena. Trail-irteera doakoa da eta, “lagunarte giro ederrean egitekoa”. Horregatik, mendian korrika eginez zein gozatu ederra hartu daitekeen probatzera animatu nahi dute jendea, gero eta gehiago baitira “lotsa eta beldurrak baztertuta” kirol modalitate berri horri eutsi diotenak.

Irene Sarrionandia aitzindaria lagun

Irene Sarrionandia 1948an jaio zen Zornotzan eta gaur egun Deban bizi da. Mendi-lasterketen aitzindaria da eta, adinean aurrera joan arren, oraindik pozik helzen dio “bizimodu” horri. Beste bi lankiderekin hasi zen korrika egiten eta, bere ibilbideak luzatzen hasi zenean, Behobia-Donostian eman zuen izena. Errepidez kanpo korrika egiteak zuen abantailaz konturatu eta mendiaz esperimintatzen hasi zen. 55 urterekin minbizia diagnostikatu zioten, baina gaixotasunak ez zion eragotzi bizimodu aktiboarekin jarraitzea. 2003an Zegama-Aizkorriarekin, bere bigarren ekitaldian, hasi zituen Irenek mendi-lasterketak. 11 edizio egin zituen



Aurten 75 urte beteko dituen mendi korrikalariaren eredu



42 lagun elkartut ziren Deporrekoe eta Elgoibarko Morkaikoek antolatutako sagardotegirako mendi-irteeran.

jarraian eta beste batzuetan parte hartzea erabaki zuen. Iزابako Camile Extreme lasterketaren edizio guztietan hartu izan du parte eta baita Nafarroa Extreme eta Domusa Teknik 40 MLK-n ere. Kirolak osasuna ematen diola dio Irenek: “Osasun fisikoa eta mentala. Bizipoza ematen dit. Lau edo zortzi ordu egin eta gero, nekatuta baina oso-oso gustura beti”.

Europako azken bazter basatia

“Westfjords: Islandia ezezaguna bizikletaz” proiektioa eskainiko dute datorren asteko eguenean Portaleko areto nagusian, 19:00etatik aurrera. **Igone Mariezkurrenak** euskaraz sortutako emanaldiaren ondoren solasaldirako tartea ere izango da. Aurtengo Mendi Jardunaldietako hirugarren ekitaldi hori ere doanekoa izango da. Bereziak izango dira benetan egileak Westfjords eskualdean, ipar-mendebaldeko fiordo inguruetan, bizikletaz egindako bidaiaren zertzeladak. Gizaki bakoitzareko 20 ardi bizi diren proportzio horretako eremura ez da Islandiara iristen diren bost milioi bisitariak. Herrialdearen altxorra “natura basatia da, ukitu gabea; errepideen erdiak baino gehiago



Bizikletaz eta autosufizientzia eran esploratzeko altxor berezia

asfaltatu gabe daudenak oraindik, eta horrek ere uxatzen ditu turistak”. Zirkulu polar artetik 50 kilometro eskasera dagoen lur horretan tundrako klima izugarri aldakorra dago: benetako erronka, beraz, bizikletaz eta autosufizientzia eran esploratzeko.

Sagardotegitik Herri Txikiak-era

42 lagun elkartut ziren Deporreko mendi-batzordekoek, Elgoibarko Morkaiko taldekoekin elkarlanean, antolatutako azken irteeran. Egun polita izan zuten, “hotza hasieran, baina laster berotu ginen”, diotenez. Lokatz handia zegoen tarte batzuetan eta “izugarriko panorama Pagoeta tontoretetik”. Eta Txindurri Iturri sagardotegia? “Primerakoa”. Bertan bazkaldu eta, ondorengo solasaldiaren ondoren, etxera bueltatu ziren.

Hurrengo ohiko irteera Herri Txikiak zeharkaldiaren laugarren etapa izango da, Leitzañ hasi eta, 956 metroko Guratzetik pasatuta, Betelura eramango diena. 17,6 kilometroko ibilbidea egingo dute irteera horretan, kilometroko igoera metatuarekin eta 1.245 metroko jaitsierarekin. Txango hori hilaren 11n burutuko dute, zapatu horretan goizeko 07:30ean Ego-Gainetik autobusez irtenda.

Asteburu horretan Mendi Eskiko irteera ere badute iragarrita. Zapatu eta domeka horretarako asmoa “Aurreko bailarara joatea da eta, baldintzen arabera, bertan aukeratuko dira ibilbideak”, Deporretetik diotenez. Izenematea, betiko lez, martitzen eta eguenean egin daiteke Toribio Etxebarria 16ko bulegoetan (19:30- 20:30).

Repeskatik txapela janztera: beste garaipen bat Hodei Ezpeletaren bildumarako

Beste behin ezustekoa eman zuen Eibarko aizkolariak eta txapela bereganatu zuen domekan Urrestillan jokaturako Urrezko Aizkolari Binakako Txapelketaren finalean. Final horretan parte hartzeko txartela ere “repeSCAN” lortu zuen Hodei ezpeleta “Bihurri”k eta Jokin Urretabizkaia “Basozabal”ek osatutako bikoteak. Bihurrik eta Basozabalek jantzitako XXIII. Urrezko Binakako Aizkolari txapelarekin batera, Azpiazuk harri-jasotzekoa irabazi zuen ekitaldi berean.

Aizkolarien txapelketako finala jokatu zuten lau bikotetik Bihurri eta Basozabal izan ziren azkarrenak; bikote horrek 17 minutu eta 19 segundo behar izan zituen lanekin amaitzeko. Bigarren Iker



Vicente eta Jon Rekondo sailkatu ziren, 50 segundora, eta hirugarren Larrañaga eta Amundarain, minutu eta erdira pasatxo. Laugarren sailkatu ziren Txikia IV.a eta Zelai IV.a, lanak 19 minututan eta 16 segundotan amaituta.

Hodei Ezpeleta eibartarrak “egun ona” izan zutela dio, “batez ere jakin izan genuelako indarrak ondo neurtzen hasieratik”. Gogoan du Abadiñon Sanblasetan kontrakoa gertatu zitzaizela Vicenteren aurka eta orduan azken honek hobeto asmatu zuela. Basozabalengatik

ere asko pozten da Hodei, aurretik ere berarekin jardun eta “laguna kontsideratzen” duelako. Ernesto aitaren aholkuak jarraitu zituen galdetuta, “hasierako lan motzetan urruti izan nuen, gero bai, nabaritu nuen bertan genuela”. Sasoi hau egokitzen hartzen du “bikotea eta serieak eginez freskotasuna hartzen joateko, kilo batzuk hartu ditudalako”. Urrezko Aizkora individuala du orain jo-puntuari: “Iaz 23 urtetik azpikoetan hartu nuen parte. Aurten ahalik eta urrutien heltzen saiatuko naiz”.

Duatloi denboraldia hasi dute JAZ Eibar Triatloi Taldekoek

Aurreko asteburuan duatloi denboraldia hasi zuen JAZ Eibar Triatloi Taldeak eta Mungiako duatloian

debutatu zuen Roberto Gartziak, aurreko urteetako bidetik V2 kategorian bigarren postua eskuratzeko

(63. amaitu zuen sailkapen nagusia). Alex Higuera taldekideak, bestalde, Galizanoko duatloian debutatu zuen, azkenean 33. postuan amaitzeko.

Bestalde, gure herriko triatloi taldeko Roberto Gartziak euskal duatloi zirkuituko V2 kategorian lehen sailkatu gisa egiaztatzen duen saria jaso zuen Euskadiko Triatloi Federazioak antolatutako galan. Ekitaldi berean Miguel Ledesma taldekideak euskal triatloien egutegian sailkapen nagusiko laugarren postuan amaitzeaz aparte 23 urtez azpiko bigarren izateagatik ere jaso zuen berea.



Alex Higuera JAZ-eko triatloilariak Galizanoko duatloian debutatu zuen.

Euskadiko lasto-botatze txapela jantzi zuen beste behin Jose Martin Bustinza "Tubi"k

Jose Martin Bustinza "Tubik" lasto-botatze txapela jantzi zuen aurrekoan Mungian jokaturako lehiaketan. Hamabost irabazi ditu dagoeneko Diman jaio eta Eibarren bizi den kirolariak, "ofizialki egindako guztiak". Oraingoan 6 metro eta 40 zentimetroko markarekin jantzi zuen txapela, Juan Carlos Lopez eta Mikel Agirre atzetik geratu zirenei metroa eta 30 zentimetroko alde aterata. Egun eta toki berean Euskal Herriko lokotx-biltze txapelketak ere izan ziren jokoan, gizonetako zein emakumezkoen mailatan.

Tubik 6,70 metroan du Euskal Herriko lasto-botatze marka, 2009an eskuratutakoa, eta oraingoko txapela 2022. urteari dagokio. Txapeldun handiak hurrengo erronkatzat du "Bilbon Aste Santuan egin behar dudak erakustaldia".



Txirrindularitzaren aldeko protesta

Gipuzkoako oinarrizko txirrindularitzan sortutako egoera dela eta, **Eibarko Txirrindulari Elkarteak honako ohar hau argitaratu du:**

-Bidezkotzat jotzen dugu moto-loturek hasitako protesta, hasiera batean Gipuzkoan, txirrindularitza lasterketan segurtasuna eskatuz. -Agintariei eskatzen diegu esku har dezatela auzi honetan, aspaldidanik gertatzen ari den arazo hau behingoz konpontzeko. Izan ere, klub askok irtenbide inprobisatuak jarri behar izan dituzte moto-lotura horien segurtasuna bermatzeko.

-Zalego onena, txirrindulari onenak eta Tourra bera ere izan nahi baditugu, funtsezkoa da oinarritik hasia, teilatutik hasi beharrean.

-Beraz, kirol hau guk sentitzen dugun bezala sentitzen duen orori dei egiten diegu **igandean, martxoak 5, eguerdiko 12etan Untzaga plazan** egingo dugun protesta-ekitaldira. Barkamena eskatzea besterik ez zaigu geratzen, bai babesleei, baita taldeei eta zaleei ere, lasterketa bertan behera geratzeak sor ditzakeen eragozpenengatik.

Bar Txoko taldeak foball-zaletuen Liga txapelketa berri bat bereganatu du

Asteburu honetan jokatu zen gure herriko foball-zaletuen Ligako azken jardunaldia eta datorren asteburuan Kopa txapelketari ekingo diote. Oraingoan, gainera, Kopa torneoak beste sistema bat izango du, bost taldeko bi multzotan ba-

natuta. Bar Txokok nagusitasun handia erakutsi du Ligan eta Garajes Garcia bigarren sailkatuari zortzi puntu atera dizkio. Bestalde, bi partidu galdu ditu bakarrik eta beste bat berdindu, beste guztiak irabaziz.

Sartutako eta jasotako golei begira, Txoko izan da askogatik talderik goleatzaileena (91rekin) eta Bali, kontrara, gol gutxien lortu dituen. Eta, goleatzaileen atalean, Bar Txokoko Muniozek 26 lortu ditu liga honetan. Bere atzetik, 16 golek du America Sport-eko Roberto, eta horri jarraitzen diote Muniozen bi taldekidek: 15 gol dituen Markek eta 14rekin amaitu duen Alexek.





Egitarau osoa
deskargatzeko:



martxoak 3 (barixakua)



“Los días ajenos”

El Terrat
Bob Pop

Bakarrizketa / 90'

Antzeleak: BOB POP

Zuzendaria: ANDRES LIMA

Bob Pop iritzi emale bikaina bihurtu da, besteak beste Andreu Buenafuenteren programako atalari esker. Gidoirik gabe eta inprobisatuz, bere bizitza errepasatzen du besteen egunkarien bidez. Esperientzien collage urratzailea eskaintzen digu.

Coliseo (19:00)

martxoak 6 (astelehena)



“Las que limpian”

A Panadaria (Galizia)

A. Bolado, A. Kendelman, N. Castro

Komedia / 80'

Antzele eta zuzendariak:

ARETA BOLADO, AILEN KENDELMAN,
NOELIA CASTRO

Ez du bakarrik garbiketako langileez hitz egiten, emakumez eta egunero zapaltzen dugun zoru bustiaz baizik, hairbat galdera eginez: bada lan horren balioa handitzen eta generotik aldentzea? Nork garbitzen du garbitzailearen etxea?

Coliseo (19:00)

martxoak 7 (martitzena)



“Marea baja”

Pez Limbo (Araba)

Espe Lopez, Javier Barandiaran

Komedia / 80'

Antzeleak: JAVIER BARANDIARAN,

UNAI LOPEZ DE ARMENTIA

Zuzendaria: ESPE LOPEZ

Marea biziatarako prestatuta dagoen jendea erakusten du, gehienetan gizonak, edozeinen alde borrokatzeko gai direnak. Horrelakoak, ordea, ez dira gai itsasbeherari aurre egiteko, ezkultuko emozioen geologian lasai murgiltzeko.

Uni-Eibar (19:00)

martxoak 9 (eguna)



“Cigarreras”

Contraproduccións (A Coruña)

Drama / 105'

Antzeleak: SUSANA DANS,

TAMARA CANOSA, ISABEL NAVEIRA,

LEDICIA SOLA, COVADONGA BERDIÑAS

Zuzendaria: CANDIDO PAZO

“La Tribuna” eleberrian oinarrituta, emakume langile baten eta gizon burges baten arteko ezinezko harremana kontatzen du. I. Errepublikako aldamarkatzerako eraman zuten krisialdi politikoaren lekukotza ere eskaintzen du, umore zorrotzean.

Coliseo (19:00)



Ramon Ibarra eta Asier Hormaza, Garbi Losada zuzendariarekin.

Desberdintasunari buruzko komedia "beltza" martxoaren 10ean

Ados Teatroaren "Lagun beltz asko" izango da gurean datorren asteko barixakuan. Hemen ez gara arrazistak. Hemen denok ditugu lagun beltz asko. Hala ere, aizu, gauza asko entzuten dira; adibidez, gero eta delinkuentzia gehiago dagoela, jende horrek lana kenduko digula... Ramon Ibarra, Asier Hormaza eta Asier Sota aktoreek emango diote bizitza hausnarketara deitzen digun euskarazko obra horri.

Beharrezko istorio bat: gure sinesmen eta printzipioen flotazio-lerroari zuzenean begiratzen dion kontaktuzuna, dramaturgia probokatzailea, elkarrizketa biziz beteta, barretik dramara etenik gabe pasatzen dena. Errealitateari lotutako istorio bat, gaurkotetasun biziko gai bati ematen diona: pertsona ezezagunari, migratzaileari, beste erlijio bateko jarraitzaileari, gizarte-klase ahulagoa duenari edo bestelako joera sexuala duenari beldurra edo arbuioa.

Garbi Losadak eta Jose Antonio Vitoriak zuzendutako lanak ordu eta erdian gaurkotetasun handiko gaia jorratzen du

Geruza askoren azpian ezkututzen dugun sentimendua da hau. Ezberdin denarekiko, aniztasunarekiko beldurra, guztiok ezkututzen duguna, izan ere, denok ditugu "lagun beltz asko".

Testu "beltz" bat, gizatasunez beteta, eta gizakiaren miseriak "beltzak horiek ere" nabarmentzen dituena, publiko zabal eta orotarikoari zuzendutako komedia "beltza, kasu honetan". Dramaturgia freskoa, barre-algarak eta emozioak sortzen dituena, eta biraketa-puntu harri-garriak dituena. Ongi definitutako pertsonaiak dauzka, ezagun egingo zaizkigunak, gizatiarrak.

Tonua komedia beltzetik amaierako dramarainoko balantzan dago, eta denok desorekatik zer hurbil gauden erakusten du. Edo hiltzaile izatetik gauden gertutasuna, ekin-tzaz edo omisioz. Inork ez duelako arazorik atzerritarrarekin kirolaria edo aberatsa bada. Baina halakoa ez bada...

Yerma, Lorcarik gabe

Hemen ez gara arrazistak. Hemen denok ditugu lagun beltz asko. Eta gauza asko entzuten da, gero eta delinkuentzia gehiago dagoela, jende horrek lana kenduko digula entzuten da. Taberna horretan ere gaua luzatzen da eta "bertakoek" hain urrunetik datorrenari lagundu egin nahi diote nola edo hala. Ezin elkar ulertu ordea. Istorio hau taberna batera sartu eta, nahigabea, bertako anfitrioiaren isilpeko sekretuak nahastearen ondorio da.

Amairan, gorpu geldo bat tabernako zoruan. Poliziari kontatuko dioten bertsioa, berriz, klasikoa: ez zuen paperik, indarrean sartu zen, lapurtu egin nahi zien. Beraiek lagundu besterik ez zuten egin nahi, baina ez zioten ezertxo ere ulertzen. Agian zerbait ulertu izan balio, han ez zen ezer gertatu izango.

AITOR BENGOETXEA • UEUren zuzendari berria

“Bere jardunean euskarak zentralitatea duen unibertsitatea beharrezkoa da”

Bere egoitza nagusia Eibarren duen Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) urteko Batzar Nagusia egin zuen zapatuan eta zuzendari berria hautatu zuen. Aitor Bengoetxea zuzenbidean Doktoreak hartu du Kepa Sarasolaren lekukoa. Horrez gain, zuzendaritzakide berri bi hautatu dituzte Xabier Landabidea eta Ines Castiellaren tokiak betetzeko: Arantza Aldezabal Roteta (Pasai Antxo, 1967) eta Maria Napal Fraile (Lizarra, 1983).



Kepa Sarasolari erreleboa hartuko diozu Udako Ikastaroen 50. urteurrenaren ondotik. Zer nolako UEU topatu duzu?

Azken urte honetan UEUko zuzendaritzan ikusi dudana arabera, bizirik eta gogotsu.

Aurretik ere ardurak hartutakoa zara UEUn, baina nola hartu duzu zure izendapena?

Ohorea da niretzat, UEU erakunde ilusionagarria eta komunitarioa delako.

Erakundeari zein ekarpen egingo diozula uste duzu?

Gogotsu eta ilusioarekin lan egitera nator eta, ekarpena baliagarria izateko, belarriprest eta ahobizi izango naiz.

Zergatik da beharrezkoa UEU?

Euskal Herriak, bere existentzia bera auzian egonda, behar duelako ikuspegi nazionala duen eta bere jardunean euskarak zentralitatea duen unibertsitatea.

Zer da UEU zuretzat?

Euskal Unibertsitatearen aldeko komunitateak bizirik mantentzen duen proiektua.

50 urte eta gero, zeintzuk dira, zure ustez, une honetan UEUk dituen erronkak?

Euskal komunitate zientifikoa saretu eta trinkotzea, komunitate horretako kide edo pertenezia sentsazioa indartuz, aniztasunetik abiatuta. Bide horren ortzimugan, Euskal Unibertsitatea dago. XXI. mendean egonik, online Euskal Unibertsitate proiektua garatu eta gauzatzea da beste erronka garrantzitsuetako bat.



“Bizia zaintzen” erakusketari lotutako bi saio egingo dira

Artekom-en eskutik (Ingurumen eta energia trantsizioarako Artea eta Komunikazioa) “Bizia zaintzen” basoari buruzko hausnarketa proposatzen duten piezen eta esku-hartze artistikoen erakusketa kolektiboa ikus daiteke Portalean, martxoaren 26ra arte. Erakusketa-rekin batera, bi saio egingo dira topaketa, truke, informazio eta eztabaidarako. Martxoaren 15ean izango da lehena, “Basoa: artearen eta ekologiaren ikuspuntutik” izenburuko mahai-ingurua, Mikel Jauregi Oregi, Mikel Garate Arakama eta Jose Angel Lasa Garicanorekin. Eta bigarren saioa martxoaren 22an egingo da Julia Marti Comasen eskutik, “Manual ecofeminista contra el poder corporativo” izenburuari jarraituta. Biak izango dira Portalean, 19:00etan hasita.



Arte eszenikoen inguruko tailerra LH-ko ikasleentzat

“Musikala sortzen” tailerra antolatu du Udalak, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Euskaraz izango da eta Errebal Plazan burutuko dute, martxoaren 18, 25 eta 26an, 17:00etatik 19:00etara. Matrikula martxoaren 13ra arte egin daiteke, Udalaren webgunean. Prezioa 9 eurokoa da Eibarren errolatuta daudenentzat (18 eurokoa kanpokoentzat).



Broadwayko musikaletako piezak joko dituzte bihar

Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du bihar arratsaldean, 19:00etan, Coliseo antzokian. Andoni Vazquezek zuzentzen duen taldeak Broadwayko musikal ezagunetako piezak joko ditu oraingo honetan: “Cats”, “Cabaret”, “Chess”, “Porgy and Bess”... Sarrerak dohainik dira eta Kutxabank zerbitzuaren bitartez edo antzokiko leihatilan eskuratu daitezke.

Menu errazak azkar prestatzen ikasi nahi dutenentzako kurtsoa

Menu errazak, osasuntsuak eta azkarrak egiten ikasi nahi duten 18 urtetik gorako herritarrentzat “Menu errazak” izeneko ikastaroa antolatu du Udalak. Klaseak




Kontent jatetxearen eskutik egingo dira, euskaraz, eta 12 orduko ikastaroa izango da. Martxoaren 14, 16, 21, 23, 28 eta 30ean izango da (martitzen eta eguenak), 18:30etik 20:30era. Izen-ematea martxoaren 8ra arte egin daiteke Udalaren webgunean.

Nagusien osasuna hobetzeko aplikazioei buruzko tailerra

Mogidu Orientazio Fisikoko Zerbitzuak 65 urtetik gorako osasuna hobetzeko dauden aplikazio mugikorrei buruzko tailerra emango du datorren asteko eguenean (martxoak 9), 11:00etan, Untzagako jubilatuetan. Tailerra dohainik izango da eta, parte hartzeko, interesdunaren izen-abizenak bidali beharko dira, whatsapp bidez, edo bestela zuzenean 688 724 174 telefonora deituta ere eman daiteke izena (azken eguna gaur da).

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6			2	5	1	
5	4		7		2	
	2		1			
8			6	4		
	3				9	
		6	1		3	
				1	2	
6			5		3	9
2	9	7			4	




soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				2	5
	6	1		4	8
			4	2	6
2		4			1
	1	5	7		9
9			6		3
	4	7	5		
7	3			1	5
5	1				



soluzioa



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK

BURUA ZERTXOBAIT ASTINTZEKO ARIKETAK

NENUFAREAK LAKUAN

Laku bateko superfizian nenufareak daude. Egutero bikoiztu egiten da nenufareen bezperako hedadura. Laku gutzila betetzeko 48 egun behar izan badira, zenbat egun beharko ziren lakuaren erdia betetzeko?

48 egun. Zenbatizko erdia izango da 48 eguneko erdia bikoiztuaren erdia.

MAKINAK ETA ARTIKULUAK

5 makinak 5 artikulu idazten badituzte 5 minututan, zenbat denbora beharko dute 100 makinak 100 artikulu egiteko?

5 minutu. 100 makinak 100 artikulu idazten badituzte 5 minututan, 100 makinak 100 artikulu idazten badituzte 5 minututan.

Martxoak 3/9

BARIXAKUA 3

MERKEALDIEN AZOKA

10:00/20:00 Neguko merkealdien azoka. Errebal Plaza.

ZINE-FORUMA

18:30 "Mil veces buenas noches" (Erik Poppey). Pagatxak antolatuta, M8-ko egitarauaren barruan. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Los dias ajenos" (El Terrat). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

DANTZA

19:30 "Kateak apurtzen" dantzaren entsegua. Mogel Isasi (patio estalia).



ZAPATUA 4

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 Astelena Haur Parkea. Astelena frontoia.

DANTZA

13:15 "Kateak apurtzen" dantza ikuskizuna, Kaxa Mugimendu eta Sormen Guneak antolatuta M8-ko egitarauaren barruan. Untzaga.

MUSIKA

19:00 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseo.

DOMEKA 5

NEGUTRIL TOPAKETA

08:30 Trail irteera eta solasaldia, Irene Sarrionandia korrikalari beterranoarekin. Klub Deportiboa..

KONTZENTRAZIOA

12:00 Eibarko Txirindulari Elkarteak deitutako protesta-ekitaldia Udaberri Saria lasterketa bertan behera geratu ondoren.. Untzaga.

ASTELEHENA 6

BISITA

17:30 "Itsaspeko bihotzak" erakusketa didaktikorako saioa, familientzat. ErrebalPlazia.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Las que limpian" (A Panadaria). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

MARTITZENA 7

BERRIKETAN IKASI

10:00/12:00 Amatasun subrogatua" gaiari buruzko tertulia. Sarrera librea. Portalea..

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Marea baja" (Pez Limbo). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparrua.

EGUENA 9

HITZALDIA

10:00/12:00 "Lorezaintzako estiloen bilakaera", Iñaki Larrañagarekin. Sarrera librea. Armeria Eskola.

TAILERRA


11:00 Aplikazio mugikorrei buruzko tailerra, 65 urtetik gorakoentzat. Mogiduk antolatuta. Untzagako jubilatuta. Untzagako jubilatuta etxea..

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola emateko saioa, odol-emateentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

JARDUNALDIA

18:00/20:00 "Enplegurako prestakuntza: pertsona migratuen egoitzarako zubia". Errebal Plaza .



MENDI JARDUNALDIAK

19:00 "Westfjords: Islandia ezezaguna bizikletaz", proiektzioa eta solasaldia, Igone Mariezkurrenaren eskutik. Euskeraz. Portalea.



ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Cigarreras" (Contraproductions). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Martxoaren 19ra arte:
- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN". (Armagintzaren Museoa).

Martxoaren 26ra arte:
- "BIZIA ZAINTZEN - BASOIA. BIODIBERTSITATEA. BIZITZA". (Portalea).
- "LARANJEN ARTEAN" (Saioa Burutaran) eta "URTAROAK" (Maite Rosende). (Portalea).

Martxoaren 31ra arte:
- "EIBARKO SOZIALISTEN 125 URTEAK". (Herriaren Etxea).

Martxoaren 6tik 17ra:
- "ITSASPEKO BIHOTZAK". (Errebal Plazia).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **4an:** 22:30
- **5ean:** 20:00

“La novia de América”
UMOREZKOA




2023/Espainia/99'
Zuzendaria: Alfonso Albacete
Aktoreak: Miren Ibarguren,
Gines G^o Millan, Pol Monen
Komedia/Familia gorabeherak

2 ARETOA

- **4an:** 19:45, 22:30
- **5ean:** 17:00, 20:00
- **6an:** 20:30 (1 Aretoa)

“Missing”
THRILLER-A



2023/AEB/111'
Zuzendaria: Nicholas Johnson
Aktoreak: Storm Reid, Nia Long,
Amy Landecker
Drama/Bahiketak/Informatika

ANTZOKIA

- **4an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **5ean:** 17:00 (1 Aret.), 20:00
- **6an:** 20:30 (1 Aretoa)

“Irtati”
FANTASIA




2022/Euskal Herria/114'
Zuzendaria: Paul Urkijo
Aktoreak: Edurne Azkarate,
Eneko Sagardoy, Itziar Ituño
Erdi Aroa/Mitologia/Abentura

ANTZOKIA

- **4an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **5ean:** 17:00

“Momiak”
ANIMAZIOA



2023/Euskal Herria/88'
Zuzendaria: J.J. Garcia “Galo”
**Egiptoko momiak/Bidaia/
Eratzunaren bila**

FUNEUSKADI
Funerariak

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO CREMATORIO EGOITIARE

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Sidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xailon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

3. URTEURRENA
2020/03/07

**“Geurian egunero,
CLARITA”**

MAITE ZAITUGU
- ETXEOAK -

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **ASIER**, 8 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Edurneren partez.



Zorionak, **EKHI**, gaur 8 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NORA**, domekan 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **JON!** Zapatuan 7 urte beteko dozuz-eta. Musu potoluak etxekuen partez.



Zorionak, **NORA!** Eguenian 6 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu, printzesa. Musu potoluak famelixaren partez.



Zorionak, **MARTIN!** 8 urte gure bizitza poztasunez betetzen!! Asko maite zaittugu. Aita, Ama eta Libe.



Zorionak, **AMETZ**, pitxin! Gaur bertan 13 urte! Patxo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AIORA**, bixar 14 urte beteko dozuz-eta. Izugarri maite zaittugu, Txispita!! Patxo haundi bat amatxo, aitaixo eta Oihenarten partez.



Otsaillaren 21ian 10 urte egin zenduaz, **BENAT**. Esan zeskuzenez, oso zoriontsu pasa zenduan eguna. Holan jarraitu beti.



Zorionak, **IBAI!!** Eguaztenian gure mutiko haundixak 5 urte beteko dittu-eta!! Musu erraldoi pillua famelixaren eta, batez be, Uxueren partez!!



Zorionak, **LAIA** Castro, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JULEN!** 4 urte bete dozuz-eta hillaren 1ian. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **UXUE!** Atzo 3 urte bete zenduaz-eta. Musu pillua etxekuen eta, batez be, Jare-ren partez!!



Zorionak, ama; zorionak, amama **MARITXU**, astelehenian urteguna dozulako. Ospatuko dogu!!! Musu bat, eta segi beti bezain jator!



Zorionak, **AITOR** (12 urte) eta **GARI** (9 urte)!! Patxo potolo bat famelixaren partez.



Zorionak, **ITXASO** eta **ARMANDO!** Ezkondu eta gero oin arte bezain zoriontsu izaten segitzia opa dizuegu lagunok.

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).
- Eibartar gazte batek baserria erosiko luke Eibarren. Edozein egoeratan dagoelarik, ikusteko prest dago. 688631803.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. 631907807.

- Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. 652532589.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632794799.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624127122.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624127087.
- Emakumea eskaintzen da andrak zaintzeko (agiri sozio-sanitarioarekin). Autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta asteburuetan ere. 631907807.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde umeak zaintzeko. Esperientzia eta magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta asteburuetan ere. 632786952. Bibiana.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 642577823.
- Emakume eibartarra eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 650113733.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 633101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 641739472.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 612294738.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulu sozio-sanitorioa) eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 617914989. Luz Estrella.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldean laguntzeko. 647533201. Miriam.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631143972.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 692932984.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauez ere. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632072254.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 641456514.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 602490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Inter. 632642320.

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Ilea zaintzailea behar da jor. 619928881.
- Dendaria behar da modadenda batean. Arratsaldeko ordutegian. Laga curriculum Closet denda (Estaziño, 10).
- Langilea behar da interna moduan pertsona bat zaintzeko. 688678934.

- Emakumea behar da Eibarko denda batean. Jornada erdi, arratsalde, martitzenetik zapatara. Bidali curriculum: eibartienda@gmail.com.
- Ilea zaintzailea behar da estetikien edo/eta azazkaletan eta pedikuran esperientzia duena behar dute. 686256940 (whatsapp).

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.2. Eman

- Hiru pertsona laminadun (1'60ko luzerakoak) oparitzen dira. 656732584.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko barixakuan jaka urdin bat (barruan giltzekin) galdu nuen, ustez Koskorren. Barrutik zuria da. Jaso zuenari eskertuko nioke Udaltzaingoa entregatuko balu...

6.4. Bestelakoak

- Etxerako altzariak behar ditut (ohea, sofa, armairuak...). 632310865.



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

Maiatza/Ekaina/Uztailako **DEIALDIA** AZTERKETAK Eibar, Durango eta Arrasaten

MATRIKULAK Martxoaren 1etik 24ra

AZTERKETA	DATA	PREZIOA	AZTERKETA	DATA	PREZIOA
STARTETS	ekainak 3 (larunbata)	65€	CAE	ekainak 17 (larunbata)	198€
MOVERS	ekainak 3 (larunbata)	67€	CAE	uztailak 8 (larunbata)	198€
FLYERS	ekainak 3 (larunbata)	70€	CPE	ekainak 10 (larunbata)	215€
KET (For Schools)	ekainak 10 (larunbata)	95€	PET	maiatzak 6 (ostirala)	100€
PET (For Schools)	ekainak 10 (larunbata)	100€	FCE FS	ekainak 10 (larunbata)	190€
FCE	ekainak 17 (larunbata)	190€	FCE FS <small>Durango Durango</small>	ekainak 24 (larunbata)	190€
			FCE FS <small>Eibar Eibar</small>	uztailak 1 (larunbata)	190€

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEIA:	English Square	648 26 82 06
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 99		Ibaizabal Ikastola	94 621 58 77
	Target Schools of English	607 83 36 13	MARKEINA:	Lea Artibal Ikastetxea	94 616 90 02
ERMUA:	Akerlel	943 17 66 32	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ELGOIBAR:	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
	ILS	943 74 40 40	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
ONATE:	Sounds Great	943 78 20 91	MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

Axola zaizun informazioa
inoiz baino **gertuago**



etakitto.eus





Gipuzkoa

*berdea, orain
eta beti.*

Gure
ingurua zaintzea
zure baitan dago.

Etorkizuna *Orain.*

etorkizunaeraikiz.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN